

II. eranskina

Proiektuaren deskripzio-memoria

Memoria egiterakoan kontuan hartu beharrekoak:

- Dokumentazioa euskarri digitalean aurkeztuko da.
- Eranskin honen puntuetan ezarritako hurrenkerari jarraituko zaio.
- Orrialdeak zenbakiturik aurkeztuko dira.
- Atal guztiak bete eta behar diren egiaztagiriak aurkeztu behar dira.
- Hutsik dauden atalak edo justifikatzen ez direnak ez dira baloratuko.

Proiektuaren memorian honako hauek jasoko dira:

1. Izena
2. Proiektuaren deskribapen zehatza.
3. Aurrekontu ekonomikoa.

Deskribapenean proiektuaren helburuak eta horiek lortzeko egin beharreko ekintzak zehaztuko dira.

Horrez gain, hauek ere jasoko dira: proiektua noiz egingen den, onuradunen ezaugarriak eta kopurua, lortu nahi den emaitza ebaluatzeko adierazleak, alderdi berritzaileak eta pedago-gikoak, eta euskara erabiliko den edo ez.

Proiektuaren deskribapena Din A-4 neurriko 20 orritan egingen da gehienez ere, alde batetik idatzirik (edo 10 orri, bi aldeetatik), gutxienez ere 11 puntuko letra mota arruntarekin.

Aurrekontuari dagokionez, proiektuaren aurrekontu osoa aurkeztu beharko da, eta bertan argi geldituko da entitateak dituen baliabide ekonomikoak (diru-sarrerak eta gastuak), giza baliabideak (bazkideak, kontratatzen diren langileak) eta baliabide materialak (azpiegiturak) koherenteak direla proiektuari aurre egiteko.

Oro har, aurrekontuaren deskribapena III. eranskinean jasotako ereduko zehaztapenei jarraikiz aurkeztu beharko da.

Irizpide hauek erabiliz baloratuko dira proiektuak (autoebaluazio hau aurkeztu):

Proposamenaren kalitatea 65 puntu:

- Sektorearen asoziazionismo eta garapen arloetan proposatutako ildo orokorrak eta estrategiak (10 puntu gehienez).
- Sektorearen garapenerako ikastaro eta ikerketetan parte-hartzeen kopurua eta garrantzia (20 puntu gehienez).
- Lurraldean eta nazioartean sustatzeko ekintzak: jardunaldi, azoka eta lehiaketetan parte-hartzea (20 puntu gehienez).
- Lurraldean eta nazioartean sustatzeko ekintzak: jardunaldi, azoka eta lehiaketetan parte-hartzea (20 puntu gehienez).
- Elkartutako entitateei emandako zerbitzuak (10 puntu gehienez).
- Jardueren digitalizazioa (5 puntu gehienez).

Proposamenaren eragina (zeharkako irizpideak) 15 puntu

- Euskara erabiltzea proiektuan (5 puntu gehienez).
- Jarduera programaren helburu eta ekintzetan eta/edo entitatearen funtzionamenduan genero berdintasuna txertatzea (5 puntu gehienez).
- Jarduera programaren helburu eta ekintzetan eta/edo entitatearen funtzionamenduan aniztasun funtzionala duten pertsonen irisgarritasuna txertatzea (5 puntu gehienez).

Proposamenaren kudeaketa (kaudimena eta bideragarritasun ekonomikoa) 20 puntu

- Elkarrearen ibilbidea (5 puntu gehienez).

Entitateak jardueran emandako urte osoak (2,5 puntu gehienez).

Elkarrearen ordezkagarritasuna (2,5 puntu gehienez).

- Proiektuaren bideragarritasuna eta koherentzia ekonomikoa (15 puntu gehienez). Aurrekontuetan jasotako partidak egokiak eta zehatzak izatea baloratuko da, eta aurrekontua prestatua izatea ekonomia eta efizientzia irizpideei jarraikiz; horrez gainera, baloratuko da jarduera gauzatzeko behar diren partida guztiak ekonomikoki ongi mugatuak izatea, eta, azkenik, eskatutako dirulaguntzak zenbat egiten duen proiektuarentzat aurreikusitako guztizko gastuarekin alderatuta.

Oro har, proiektua **III. eranskinean** jasotako ereduko zehaztapenei jarraikiz aurkeztu beharko da.

Gastu diruz lagungarrietatik kanpo geldituko dira entitateko langileen ordainsariak, baldin eta lanbide arteko gutxieneko soldata halako 3 baino gehiago badira, baita luxuzko, ordezkartzako eta antzeko gastuak ere.